

## BELEN-GO IZARCHOA.



¡Agur maite maitea,  
 Aur-chiki *Jainkoa*;  
 Aska chuloan sortu  
 Zaigun izarchoa!

Zeruko izar eder  
 Argitsu piñenak,  
 Zuganatu naiyea  
 Dabiltza lenenak.

Lotsatzen diradela  
 Argi ematean,  
 Orren ezkutaturik  
 Zu or ekustean.

Izar zeruko-en da  
 Lurren Egillea,  
 Gizon amarez oso  
 Izan da betea.

Izar-jainkozko orren  
 Amorio garrak,  
 Bakarrik ken litzake  
 Munduko negarrak.

Atozte, artzaichoak,  
 Izar orrengana;  
 Erregeak, atozte  
 Denon Jaunagana.

Izar orren argiaz  
 Gauzak ezagutu,  
 Berari jarraiturik  
 Gaitezen salbatu.

JOSÉ IGNAZIO ARANA-KOAK.

